

argi dugu!!

LE CHEMIN VERS LA PAIX ORAIN PRESOAK

Avec la libération conditionnelle de Xistor Haramboure, l'année 2020 se termine sur une lueur d'espoir. Une lumière fragile mais que nous voulons rendre prometteuse...

ARGI DUGU !: Le chemin vers la paix passe par la case « presoak orain ! » : cela doit être une réalité ici, au Pays Basque, comme partout où les conflits d'hier ont pu être dépassés par une volonté d'avenir en commun plus forte que les sentiments légitimes générés par les souffrances d'hier. Le sort immédiat des prisonnier.e.s est un élément constitutif de ce changement radical de perspective.

La décision positive évoquée plus haut a amené les Artisans de la Paix à suspendre l'action de désobéissance civile programmée pour le 19 décembre. Tout en restant totalement mobilisés et vigilants, nous voulons croire que le blocage politique cédera enfin la place à une nouvelle étape qui permettra d'avancer à un rythme plus soutenu vers la résolution définitive des conséquences du conflit. En effet, dix ans après la fin de la lutte armée, après le désarmement et la dissolution de l'ETA, il est temps de reconnaître et de valider l'évolution irréversible qu'a connue le Pays Basque... Il est temps de prendre en considération une société plurielle et engagée qui se porte garante de cette évolution... Nous voulons croire qu'il y a une lumière au bout du tunnel. « ARGI DUGU! » : il y a une lumière au bout du tunnel !

Dans le prolongement de la décision concernant Frédéric Haramboure, il y a Jakes Esnal et Ion Parot, il y a les prisonnier.e.s gravement malades, les prisonnier.e.s âgés

et enfin tou.te.s les autres. Plus le temps passe et plus la notion même de prison est incompatible avec le chemin vers la paix. Avec les libérations conditionnelles et autres mécanismes à inventer, il faudra, au plus vite, aller vers un règlement définitif de la question de tous les prisonnier.e.s basques. « ARGÍ DUGU : PRESOAK ORAIN ! ».

Mais, même alors, nous ne serons pas encore au bout du chemin qui permet la paix à toutes et tous, quelle qu'ait été leur situation durant le conflit. Nous disions le 8 avril, jour du désarmement : « *Rien ne doit échapper à nos débats. Rien de ce qui a fait cette histoire doit être éludé ou dissimulé. Tout doit être soumis à l'examen critique et à la réflexion politique avec une seule exigence : régler de manière démocratique nos différences...* ». Cet exercice est essentiel, mais il ne peut être imposé, il ne peut être unilatéral. Il ne peut être à charge ou à décharge. Il doit contribuer à une mémoire collective respectueuse de toutes et de tous.

Pour construire un avenir en Pays Basque, il faut prendre en compte notre histoire. Nous n'oublions pas notre passé mais nous ne voulons pas être condamnés à le revivre. Avec une perspective qui doit approcher et nous rapprocher : la mise en place d'une justice transitionnelle.

Dans l'immédiat, nous voulons croire en un changement du regard de la justice française sur le processus de paix engagé au Pays Basque. La libération conditionnelle de Frédéric Haramboure ne doit pas être l'exception qui confirme la règle mais, au contraire l'expression de la volonté d'une sortie définitive du conflit par le haut, pour toutes et tous !

Nous souhaitons débiter 2021 en nous attachant à croire que cette décision est porteuse d'espoir, va en entraîner d'autres.

Le 9 janvier, nous serons aux côtés de Bake Bidea et des Artisans de la Paix pour participer à la chaîne humaine lumineuse.

argi dugu!!

LE CHEMIN VERS LA PAIX ORAIN PRESOAK

Xistor Haramboure-en baldintzapeko askatasunarekin, 2020. urtea itxaropen-izpi batekin bukatzen da. Argi hauskorra, baina etorkizun handikoa egin nahi duguna...

ARGI DUGU! : Bakerako bidea, presoak orain! pausetik pasa behar da : Horrek errealitate bat izan behar du hemen, Euskal Herrian, beste herrialdeetan izan den bezala. Nun, atzoko gatazkak eta atzoko sufrimenduek eragindako sentimendu legitimoak baino indartsuagoa den etorkizuneko borondate komun batek gaudituz behar gaituen. Presoen egoeraren berehalako aldaketa da ikuspegi erradikal horren elementu bat.

Gorago aipatutako erabaki positiboa dela eta, abenduaren 19rako aurreikusitako desobedientzia zibileko ekimena suspenditzea erabaki zuten Bakegileek. Osoki mobilizaturik eta erne egon arren, blokeo politikoak etapa berri bati emango diola tokia sinetsi nahi dugu eta erritmo azkarragoan, gatazkaren ondorioak behin betiko konpontzeko aurrera egingen dela. Borroka armatuaren bukaera eta hamar urtera, ETA desarmatu eta desegin ondoren, Euskal Herriak ezagutu dituen aurrerapausu atzeraezinak ezagutu eta baliozkotzeko garaia da... Bada garaia gizarte anitza eta konprometitua kontuan hartzeko, bilakaera horren berme delako... Tunelaren bukaeran argi bat badela sinetsi nahi dugu. « ARGI DUGU ! »: argi bat bada tunelaren bukaeran!

Frederic Haramboure-en erabakiaren jarraipenean, Jakes Esnal eta Ion Parot, biziki eri diren presoak, preso zaharrak eta, gainerateko guztiak hor dira. Zenbat eta denbora

gehiago eman, orduan eta bateraezinagoa da presondegiaren nozioa bera bakerako bidearekin. Baldintzapeko askatasunekin eta asmatu beharreko beste mekanismo batzuekin, lehenbailehen, presoen auzia behin betiko konpontzera jo beharko da. "ARGI DUGU: PRESOAK ORAIN ! ».

Baina, hala ere, oraindik ez gira deneri bakea emanen duen bidearen bukaeran izanen, gatazkaren edozein aldeetako izanik ere. Apirilaren 8an, armagabetzearen egunean, erran genuen: "Ezerk ez du gure eztabaidetatik ihes egin behar. Historia hau egin zuen ezer ez da saihestu edo ezkutatu behar. Dena azterketa kritikoaren eta hausnarketa politikoaren menpe jarri behar da, eskakizun bakar batekin: gure desberdintasunak demokratikoki konpontzea...". Ariketa hau funtsezkoa da, baina ezin da inposatu, ezin da aldebakarrekoa izan. Ezin da kargu edo deskargu izan. Guztion oroimen kolektiboa errespetatzen lagundu behar du.

Euskal Herrian etorkizuna eraikitzeko, gure historia kontutan hartu behar da. Ez dugu gure iragana ahazten, baina ez dugu hura berriro bizitzera kondenatu nahi. Hurbildu eta elgar hurbilduko gaituen ikuspegi bat izan behar dugu : justizia trantsizionalarena.

Berehala, Euskal Herriko bake prozesuari buruzko Frantziako justiziaren begiradaren aldaketa batean sinetsi nahi dugu. Frédéric Haramboure-en baldintzazko askatasunak ez du araua berresten duen salbuespena izan behar, baizik eta, alderantziz, gatazka honetatik ateratzeko behin betiko borondatea izan behar du guztiontzat!

Espero dezagun esperantza emaiten digun erabaki honek, gisa bereko beste erabaki batzuk ekarriko dituela 2021 urte hastapenean.

Urtarrilaren 9an Bake Bidea eta Bakegileen ondoan izango gara, giza kate argitsuan parte hartzeko.